

**ERALDAKETARAKO ETA JUSTIZIA GLOBALERAKO
HEZKUNTZAREN ESTRATEGIA
2026-2030**



2026/01/13an patronatuan onartua

AURKIBIDEA

Estrategia osoa.....	3
Sarrera.....	3
Helburu orokorra.....	4
Espero den inpaktua.....	5
Zeharkako ikuspegiak eta esku hartzeko printzipioak.....	5
Helburu espezifikoak eta ildo estrategikoak.....	7
Estrategiaren irismena, mugak eta horizontea.....	9
1. eranskina. Eraldaketarako eta Justizia Globalerako Hezkuntzaren Estrategiaren (2026 - 2030) laburpen-taula.....	11

Estrategia osoa

Sarrera

Gero eta desberdintasun handiagoak, narriadura ekosozial azeleratua eta tentsio demokratiko sakonak konbinatzen dituen polikrisi global batek markaturiko momentu batean bizi gara. Alde ekonomiko eta sozialak gero eta handiagoak dira, planetako mugak gainditu egiten dira eta bizitza duina izateko baldintzak mehatxupean daude, eredu ekonomiko bidegabe, estraktibista eta botere-kontzentratzaile bati, besteak beste, erantzuten dioten dinamiken ondorioz. Dinamika horiek ez diete berdin eragiten pertsona eta komunitate guztiei, eta gehiago astintzen dituzte historikoki pobretuak, arrazializatuak, kolonizatuak edo baztertuak izan direnak, bai Hegoalde Globalean, bai Iparralde Globaleko zenbait testuingurutan. Egoera horretan, bidegabekeria horiek nola gertatzen diren eta kolektiboki nola eralda ditzakegun ulertzea premiazko zeregina da.

Herritartasun Globalerako Hezkuntza Garapenerako Hezkuntzaren bilakaera-pro

Estrategia honek lotura zuzen-zuzena du Garapenerako Erakundearen Koordinakundeak garatutako kontzeptu- eta politika-esparruekin. Sektorearen hausnarketa-prozesu kolektibo zabala baten emaitza den dokumentu honekin, bereziki: *Eraldaketa* eta *Justizia Globalerako Hezkuntza*. *Espainiako lankidetzarako proposamenak*. Esparru horrek indartu egiten du EJGH prozesu politiko, hezkuntza-prozesu eta prozesu kultural gisa ulertzea, desberdintasunen kausa estrukturalak eraldatzera, subjektu kolektiboak osatzera eta gizartean eragiteko eta gizartea aldatzeko eragile anitzeko aliantzak antolatzea bideratuta dagoena. MgEren estrategiak bat egiten du ikuspegi partekatu horrekin, eta MgEren ekarpen espezifikoaren bidez zehazten da: ekonomiaren eta haren botere-egituren irakurketa kritikoa, feminista eta ekosoziala.

Halaber, Eraldaketa eta Justizia Globalerako Hezkuntzaren Estrategia hori politika publikoen eta adostasun instituzionalen esparru zabalago batean kokatzen da. Bat egiten du Lankidetzaren Espainiako Plan Gidatzailearekin (2024–

ekosozial, giza eskubideekin lotutako ikuspegi, ikuspegi dekolonial eta arrazakeriaren kontrako ikuspegian oinarrituta.

Espero den inpaktua

Kultura, gizartea eta politika eraldatzeko prozesuetan laguntzea, herritar global kritiko eta antolatuak sendotzeko, gai izan daitezen zentzu ekonomiko nagusia eztabaidan jartzeko, eta, hezkuntza-praktika, praktika komunitario eta eragin kolektiboko praktiketatik abiatuta, bizitza erdigunean jarri eta gizarte bidezkoagoak, berdintasunezkoagoak eta jasangarriagoak lortzeko bidean lagunduko duten alternatibak bultzatzeko, arreta berezia eskainiz historikoki diskriminatuak, ikusezin bilakatuak eta kolonizatuak izan diren pertsonen eta taldeen, ikuspegi feminista, ikuspegi ekosozial, giza eskubideekin lotutako ikuspegi, ikuspegi dekolonial eta arrazakeriaren kontrako ikuspegian oinarrituta.

Zeharkako ikuspegiak eta esku hartzeko printzipioak

Estrategia hau Mugarik Gabeko Ekonomialariak erakundearen edukiak eta hezkuntza-, gizarte- eta antolaketa-praktikak modu integralean bideratzen dit

galdagarritasunera, erantzukidetasunera eta herritar aktibo eta konprometituak eratzera bideratzen du.

Ikuspegi dekoloniala eta arrazakeriaren kontrakoa

Estrategiak ikuspegi dekoloniala eta arrazakeriaren kontrakoa barne hartzen du, zalantzan jartzen dituen sistema ekonomikoan eta hezkuntza-praktiketan presente dauden legatu kolonialak, jakintza-hierarkiak eta arrazakeria estrukturaleko formak. Ikuspegi horrek era askotako jakintzak aitortzea bultzatzen du; Hegoalde Globaletik eta historikoki arrazializatutako komunitateetatik datozen jakintzak aitortzea, batez ere. Eta pertsonen, lurraldeen eta kulturen arteko erlazio horizontalagoak, bidezkoagoak eta errespetuzkoagoak sustatu, eta historikoki kolonizatutako eta sistema ekonomiko nagusiak baztertutako taldeen protagonismoa, esperientziak eta borrokak aitortzen ditu.

Bakea eraikitzeko ikuspegia

Egungo eredu sozioekonomikoak desberdintasun ekonomikoak, giz

Helburu espezifikoak eta ildo estrategikoak

1. HE — Hezkuntza eraldatzea, justizia ekonomikoa lortzen laguntzeko.

1.1 IE — Ikerketak garatzea, unibertsitateko irakaskuntza justizia ekonomikoan oinarrituta beste era batera imajinatzeko eta eraldatzeko.

Unibertsitate-eremuan diziplina anitzeko ikerketak egitea, beste hezkuntza-gune batzuetara zabaltzeko modukoak, praktikak, edukiak eta egiturak justizia ekonomikoaren ikuspegitik aztertzeke eta eraldatzeko.

1.2 IE — Errealitatea kritikoki ulertzeko eta justizia ekonomikoan oinarritutako eraldaketak sustatzeko prestakuntza-proposamenak garatzea.

Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakasleei eta ikasleei zuzendutako prestakuntzak, ikastaro espezializatuak eta tailerrak diseinatzea eta garatzea, egitura ekonomiko, politiko eta ekosozialei buruz duten ulermen kritikoa send

lokalak ezagutzera ematea eta ekonomia bidezkoago baten eraketa inspiratu eta indartuko duten ikaskuntzak erraztea.

3. HE — Ekonomiaren ezagutza kritikoaren sorrera, sozializazioa eta transferentzia bultzatzea, justizia ekonomikorantz aurrera egiteko.

3.1 IE — Ezagutza sortzea gizarte-erakundeekin batera, justizia ekonomikoko alternatibak ikuspegi lokal eta global batetik bultzatzeko.

lkerketak garatzea hirugarren sektoreko erakundeekin, Hegoalde Globaleko erakundeekin eta gizarte-mugimenduekin lankidetzan, justizia ekonomikora bideratutako azterketa-esparruak emanez, arazo ekonomiko, politiko eta sozioekologikoak zorrotz aztertzeke, arazo horien kausa estrukturalak agerian jartzeko eta proposamen eta alternatiba eraldatzaileak sendotzen laguntzeko.

3.2 IE — Justizia ekonomikoko horizonteak zabalduko dituzten narratiba publikoak indartzea.

5. HE — Aliantzen eta sareen ekosistema bat sendotzea, ikaskuntza kolektiboei eusteko, gaitasun partekatuak finkatzeko eta justizia ekonomikora bideratutako ekintza eraldatzailea indartzeko.

5.1 IE — Gizarte zibilaren aliantzen parte izatea; ekintza kolektiboa eta justizia ekonomikora bideratutako politiken defentsa sendotuko dituzten aliantzen parte, hain zuzen ere.

Gizarte zibilaren aliantzetan parte hartzea, baterako lana, hausnarketa partekatua eta ahaleginen koordinazioa errazten dituzten aliantzetan, hain zuzen ere, justizia ekonomikora bideratutako ekintzak eta posizionamenduak sendotzen laguntzeko.

5.2 IE — Hezkuntza eraldatzailearen eta justizia globalaren alde lan egiten duten erakundeekin partekatutako espazioetan presente egotea eta lankidetzan aritzea.

Hezkuntza eraldatzailearen eta justizia globalaren alde lan egiten duten erakundeekin partekatutako espazioetan parte hartzea, eta, horretan, presentziaren, elkarriketaren eta

Estrategiak mugak dituela ere onartuta dago, bai gaitasunei dagokienez, bai irismenari dagokionez, eta testuingurua modu errealistan ulertzetik abiatzen da. Horri dagokionez, helburua ez da erantzun bakarrak eta konponbide itxiak eskaintzea, baizik eta hausnarketa, esperimenez eta ekintza kolektiboko espazioak zabaltzea, eredu ekonomiko nagusia zalantzan jartzen eta testuinguruan kokatutako era askotako alternatibak eraikitzen laguntzeko, desberdintasun estrukturalak eta historikoki diskriminatuak, ikusezin bilakatuak edo baztertuak izan diren pertsonen eta taldeen esperientziak kontuan hartuta.

Era berean, estrategia esparru bizitzat jotzen da, etengabe berrikusi beharrekoa, eta etengabe ikasten jarraitzea eskatzen duena. Estrategia ezartzean, beharrezkoa izango da praktikak berrikustea, ikaskuntzak txertatzea, testuinguru berrietara egokitzea eta planteatutako helburuetarantz aurrera egiteko garrantzitsuenak diren alderdiak sendotzea. Hausnarketa-dimentsio ireki hori Eraldaketarako eta Justizia Globalerako Hezkuntzaren ikuspegiaren beraren parte da, baita Mugarik Gabeko Ekonomialariak erakundeak diskurtsoaren, praktikaren eta antolaketaren arteko etengabeko koherentziaren alde egindako ap

1. eranskina. Eraldaketarako eta Justizia Globalerako Hezkuntzaren Estrategiaren (2026 - 2030) laburpen-taula

Eranskin honetan, Mugarik Gabeko Ekonomialariak erakundearen Eraldaketarako eta Justizia Globalerako Hezkuntzaren Estrategiaren laburpen-taula bat jasotzen da, ikuspegi orokor bat eskaintzeko, eta, hala, modu argi eta ordenatuan identifikatu ahal izateko erakundearen jarduna bideratzen dituzten helburu espezifiko, ildo estrategiko, hartzaile eta funtsezko aliantza eta zeharkako ikuspegiaren arteko erlazioa. Taulan ez da eduki berririk adierazi; dokumentuan zehar garatutako elementu nagusiak sistematizatuta eta laburbilduta daude bertan.

HELBURU OROKORRA	Herritar global kritiko eta itxaropentsuak bultzatzea, interdependentzia lokal eta globalak ulertuko dituztenak eta justizia ekonomikora bideratutako alternatiba kolektiboen eraikuntzan aktiboki parte hartuko dutenak,
-------------------------	---